

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.



**2020.09.28 Bizkaiko Politika Orokorreko
osoko bilkura
Jesús Lekerikabeaskoaren hitzaldia,
Euzko Abertzaleak taldeko bozeramailea**

**28.09.2020. Pleno de Política General
de Bizkaia
Intervención de Jesús Lekerikabeaskoa,
portavoz del grupo Euzko Abertzaleak**

Gaurko politika orokorreko eztabaida pleno hau berezia da niretzat eta guztiontzako ere, orokorrean. 2020. urtea ez dogu errez ahaztuko. Pasa den urtean, garai honetan, ez genekien, ez genuen susmorik ere, amets gaiztoenetan ere ez genuen honelako egoerarik edo ondoriorik aurreikusten. Oso gogorak eta bereziak izan dira egun hauek. 200 egun inguru daroaguz aurrera eta atzera, proposamen, gomendio edo arau ezberdinekin, oraindik ikusi beharko doguz neurri eta aldaketa gehiago ere. Ziur nago, egun hauek, hemen gauden guztiongan izan dutela eragina, era batera edo bestera, hurbilagotik edo urrunagotik. Gure taldearen izenean gomuta berezia eta elkartasun zintzoa izan nahi ditut, sufritu eta sufritzen ari diren guztiei, zenbaki eta matizazio barik, guzti guztiei.

Rementeria jaunaren partetik, eta ondoren talde guztien partetik, lehen aipamena pertsonentzako izan da. Elkartasuna hori, gizatasunez, den-denok adierazi dogu ganbara honetan; izan behar duen modure.

Hori esan ondoren, bizitzen ari garen egoera honetan izan diren jarrerak aipatu nahi ditut. Adierazpen asko eta ezberdinak egon dira egun eta hilabete hauetan, erraztasun handiarekin egindako deklarazio gehiegi, eta sarriegi izan dira; borondate edo intentzio onez batzuk, baina beste asko intentzio txarrez, guztiz desegoki eta alderdikieriaz egin direnak. Egoeraren aurrean, teoriarik, jende ugari zekien zer eta nola hartu behar ziren erabakiak, askok hitz egiten zuten, baina hori bai, estropadetan gertatzen den modura, lehorretik, oinak sikutan, postura eta toki eroso batetik, nekerik eta izerdirik bota gabe, ezelako aginte ardurarik barik eta hitz eginez, oso gutxi arriskatuz. Batzuk sarritan esaten izen diote traineruko patroiarik eta arraunlariek ze norabide eta ze arraunketa aplikatu behar eben galarrena honi aurre egiteko. Estropada gogorretan, itsasoaren golpearen ondorioz, palada batzuk utz egiten dira eta traineruak giñadak egiten ditu, norabidea guztiz zuzen mantentzea ez da bat ere erraza izaten. Galarrena baten olatuak ezin dira aurreikusi beste jarduera batzuetan modure, ez dire txirrindularitzako etapetako malda neurtuak, metro konkretu eta aldapa portzentai zehaztuekin, ez dira auto lasterketako bihurtuak, ze abiadura, ze frenada, eta ze martxa sartu behar dan jakinarazten dute... Galarrena bateko olatuak denak dira desberdinak: haizea, indarra, korrante, momentuan momentura moldatu behar da arraunketie eta norabidie. Niretzako urte honetan gertatzen ari zaiguna, berdina da, berdina gertatu jaku pandemiarekin.

Baina batzuk arraunean buru belarri egon diren bitartean hutsegite eta zuzenketak eginez, egoerara moldatuz, egunez egun, beste batzuk, beti egon dira kritikatzeko prest (kasu batzuetan hutsegite barik ere kritika). Kritikak gehienetan eraikitzeke ez dira izan, jipoitzeko izan dira; tristea da, benetan, baina hau ere joko honen parte ere bada, parte eskasena baina jokoaren parte.

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.



Badaude ere, konfinamendu garaian adierazi zutenak, pandemia honek gizartea aldatuko ebala, gizakiagoak egingo gintuela, elkarlanerako jarrera sendotuko zuela, solidarioagoak egingo gintuela, gauzen garrantzia relatibizatzen ikasiko genuela. Nik, tamalez, gaur hemen entzundakoarekin nire zalantzak dauzkat. Batzuk kritika suntsitzailearekin egon diren bitartean, arraunean, olatua joan olatua etorri, betikoak egon gara. 40 urte baino gehiagotan, bizkaitarrek, Bizkaiko gizarteak, babes handiena eman dion tripulazioa. Bizkaitar askok talde honetan duelako jarrita konfiantza eta esperantza, orain arte eta orain ere.

200 egun inguru daramaguz egoera honekin nahiz eta ematen daben hori baino askoz luzeagoa izan dela, oraindik ez da gainditu eta txarragoa dena, ez dakigu noiz arte izango dan. Orain dela 6 hilabete ez genekigun gaur zelan egongo ginen eta ez dakigu 6 hilabete barru zelan egongo garen. 'Jakinezaren kezka', esan dau Ahaldun Nagusi jaunak, inzertidunbrea, hori da gure kontrariorik handienetarikoa. Momentuko argazkia ez da polita, egoera txarra da, gogorra, kezkarria. Ez dugu guk eskatu hola izatea, ez gaitu gu, Bizkaitarrok bakarrik ikutzen, ez dugu guk bakarrik konponduko eta ez da administrazioek hartutako neurriekin bakarrik irtengo hemendik, Udalek, Aldundiek, Jaurlaritzak, Espainiak edo Europak hartuko dituzte erabakiak eta aplikatuko dituzte neurriak, baina gutariko bakoitzak, gizarteko kide bakoitzak bere aldetik jartzen daben edo egiten duenaren arabera, arinago edo beranduago egongo gara beste egoera batean.

Pertsonak, guztiok, gara ezinbestekoak konponbidean, esan dau Rementeria jaunak, nor izango naiz?, zer da garrantzitsua? zer egin dezaket eta zer eskatu dezaket?, norberarengandik hasita, ni neugandik hasita. Argazkia aldatzen doa, argazkia aldatzen dogu, egunetik egunera, aurrera goaz, izan ditugu eta izango ditugu atzerakadak ere, baina ondoren aurrera berriz ere, zerbitzuak moldatzen doiez, eta egoerari neurria hartzen ari gara guztion artien. Egoera txarren aurrean dugun jarrera, egoerari aurre egiteko dugun jarrera eta lanarekin aurrera egiteko konpromiso zintzoa, horrek dira balio daben errezeta on guztien, osagai garrantzitsuenak, ez bakarrik, baina bai garrantzitsuenak.

Jarrera eta lanerako konpromisu zintzoa, hori da gobernu onak eta txarrak desberdintzen dituenak, eta ez gobernuak bakarrik, hori da oposizioa egiteko erak edo modelo onak eta txarrak desberdintzen dituenak. Guk, Euzko Abertzaleok, talde modura hori eskatzen diogu gure gobernuari eta EAJ-PNV moduan, aurrera egin behar denean, orain bezala, hori eskatzen diegu gureak ez diren gobernu guztiei ere. Baina oposizioari ere bai, dagoena dagoela, gu gagozenez ere berdin, aurrera egiten lagun behar den orduan. Eta gobernu eta oposizioko alderdi guztiak esaten dudanean zintzo eta bihotzez diot. Honelako egoeratan gobernatzea ez da gozoa izaten, momentu gogorak izaten dira agintari guztientzat eta bizi izan dugunok badakigu, Jaurlaritzan, Foru Aldundian eta Udaletan noski, momentu txarrak izaten dira, sufritu duten pertsona kutsatuengatik, bakardadea sufritu eta sufritzen ari diren pertsonengatik, heriotzaren sufrimenduarekin, lanpostua galdu dutenekin eta txarto pasatzen ari direnengatik. Danok gara pertsonak eta danok sufritzen dogu.

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.



Bizkaian Aldundia gobernatzen ari zareten guztioi esker ona eta elkartasuna adierazi nahi deusuet gure taldearen izenean; baita esker ona eta elkartasuna, zintzo eta ezelako aitzakia barik Bizkaiko udaletan, herritarrek emandako babesarekin, gobernu ardurak dituzten eta lanean ari diren alkate guztiei ere, EAJkoak gehienak baina baita, EH Bildukoak, Alderdi Sozialistakoak edo talde independenteetakoak, berdin jat. Zintzo eta aitzaki barik lanean dabizen guztiei, elkartasuna eta begirunea.

Hori esanda, zintzotasun berdi berdinarekin eta indar berdinarekin diot, nik ez diodala elkartasunik, ez eskerrik adierazten, gobernatzen dutenean, jarrera bat eta oposizio zereginetan daudenean, beste jarrera oso desberdin bat duten alderdi edo taldeei. Ez nago ados gobernatzen duten lekuetan eredu bat aplikatzen dutenean (berdin zait zeri buruz aritzen garen, egoitzei, fiskalitateari edo ekonomia sustatzeari buruz) eta gero alderdi edo talde berdina, sigla berdinekin, oposizioan dagoenean gobernuari beste eredu eta egiteko era batzuk eskatzen dituztenean. Tamalez, hori ikusten dot sarritan Batzar Nagusi hauetan eta udal askotan oposizioko alderdien partetik; garbi adierazten dot.

Ez da trabak jartzeko garaia, ez da gobernu taldeen proiektuak garatzeari kontra egiteko garaia, ez da gizartearen gehienak aukeratutako alderdiaren modelu edo egiteko erei uko egitea eskatzeko garaia; baina noski, hori bai, guzti hori, benetan aurrera egitea nahi ez badugu. Helburua beste bat bada, gobernu jipoitzea bada helburua, 'kendu zaitez zu, ni jartzeko', hori bada helburua, ekin daiola bakoitzak bere ibilbideari, bakoitzak bereari. Baina borondaterik eskaintzen ez duenak ez daiola besteari eskatu. Bakoitzak bereari, eta bakoitzak bereari. BFAko gobernuaren ibilbidea zein izan behar da oraingoan ere? Bizkaiko gizartearen aurrean aurkeztu duen egiteko erarekin, Bizkaiko gizartearen aurrean aurkezten dituen proposamenak, eredu edo proiektuak burutzea, oposizioko alderdien laguntasunarekin, bai, hori izango litzateke gure nahia eta gizarteak eskatzen diguna. Baina ez badozue nahi, zuen laguntasun barik aurrera egitera behartute gaude, helburua egoera honetatik irtetea delako. Guk, Euzko Abertzaleok, gobernuari hori eskatzen diogu, lana egiten jarraitzea, beti egiten dogun erara, momentuan momentuko egoerara moldatuz. Hori da gizartearen gehiengoak beti eskatu diguna eta hori da bete behar dugun konpromisoa, Bizkaiko gizarte guztiarentzat.

Ahaldun nagusiak jarri dau gaur hemen proa aurrera begire, jarri ditu proposamenak mahai gainean. Hiru ardatz nagusi: enplegua eta jarduera ekonomikoa, gizarte ekintzaren modernizazioa eta gure lurraldea hobetzen jarraitzea. Ondoren azaldu ditu helburu horretarako, konkretuen, zeintzuk proposatzen daukozen. Ez dotez errepikatuko, entzun ditugu danok. Aurrera begiratu behar da, lamentazioak eta etsipenak alde batera utzita eta lanean jarraitu behar da, horrela irtengo gara, horrek dire zure gaurko hitzak eta hori da zure jarrera, Rementeria Maiz jauna, zurea eta zure gobernu taldearena. Gure taldearen babes osoa eta laguntza badituzu. Jarrera berdinarekin lagunduko dugu, hori delako guri guztioi gizarteak eskatzen diguna. Ez dago dudarik, aurrera begiratu behar da.

Parkatuko nauzue baina nik ezin dut kapitulu honetako orria hain bizkor pasatu, zeren oraingoan ere, oposizioko alderdiak beste zentzu batean doazela ematen du. Zer jarri dabe gaur ere oposizioko

alderdiek mahi gainean? Zein da bere irakurketa edo, barkatu, zer da oposizioak gizarteari transmititu nahi diona? Bost gauza azpimarratzen ditut nik: Orain arte Aldundiak ezer gutxi edo ezer ez duela egin; nagusien egoitzetako gestioa bereziki txarra izan dela; fiskalitatea aldatu behar dogule pandemia honi aurre egiteko; proiektu asko alde batera utzi behar ditugula, eta Aldundia pandemiaren egoera txarrenetan ez dala egon.

Baina, non ez da egon? Sare sozialetan bideotxoak eskegitzen eta mezu nahastuak zabaltzen? Ez, horretan ez da egon. Hauteskunde kanpainarako garaia ez dela esan eta bitartean eslogan elektoralak zabaltzen pandemiaren inguruan? Baieztapen eta mezu mingarriak kasu askotan... Ez, horretan ere ez da egon Bizkaiko Foru Aldundia (BFA). BFA ez dakit egon dan ala ez. Ez dakit non egon dan; agian egon egon ez da egon, egotea jarrera estatikoa delako. Baina, aritu bai, aritu da; buru belarri aritu da lanien. Ez dela egon esateko ez dakit ze datu edo informazio daukazuen; nik esaten dudana argudiatzeko, egindako batzuk zuzenean aipatuko dotez. Departamentu guztiak moldatu behar izan ziren egoerara, protokoloak egin, lanpostuak aztertu, telelanera moldatu ahal zen kasuetan... eta, era prezentzialean, martxoan eta, ia astero edo 15 egunetik behin, momentuko arau edo legeen arabera moldatzen aritu ziren osasun agintariak baimentzen zuten momentuan zerbitzu guztiak eman ahal izateko.

Neurri batzuk aipatu dira gaur hemen. Esan da 13 miloi euro baino gehiago inbertitu dirala Covid-19aren eraginei aurre egiteko. 218 miloiko sarrerak edo kobroak atzeratu dira 75.000 autonomo eta enpresa txikiri laguntzeko, ito ez daitezen laguntzeko, eta horrelako neurriak hartzen jarraituko dira.

- Enplegu plan berezia martxan jarri, 5 miloiekin, 2.000 kontrataziotik gora gauzatzeko asmoarekin
- 7.500€ arteko mikrokredituak eman, interesik, komisorik eta abalik gabe
- Tokiko merkataritzan, ostalaritzan, kulturean eta turismo-sektorean kontsumoa berpizteko bonoak kaleratu
- Bizkaiko eraikuntzako gremioen artean jarduera berpizteko Renove Etxea Plana sortu
- Elkargik abalaturako enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen maileguen gabeziarako laguntzen programa martxan jarri
- Bizkaiko herrietan mugimendua, jarduera eta kontsumoa sustatzeko barneko turismo plana zabaldu
- Pertsonak kontratatzekeo pizgarri fiskalak onartu
- BEZaren eta IRPFaren itzulketen gehienak arindu
- Digitalizazio-prozesuetarako pizgarri fiskalak sortu
- Kultur, kirol eta Covid-19aren inguruko ikerketa-jardueretarako mezenasgoa areagotu
- Bizkaian jarduera, ekonomia, aisialdia eta kultura dinamizatuko dituzten ekitaldiak bultzatu
- Bizkaia Gara boluntarioen sarea indartu eta laguntza-proiektu berriak bultzatu
- Saltzeko arazoa zeukaten nekazal produktuen irteera emateko tresnak jarri ziren martxan baserritar eta nekazariei laguntza emateko

- Nekazari eta abeltzainei euren produktuen salmenta digitala egin ahal izateko, plataformetara sarrera eskaini zaie ezelako kostu gehigarri barik, baserritarrekin zuzenean kontaktatuta azalpenak eta eskaintzak eginez
- 415.000€ko diru laguntza onartu da abeltzain eta nekazaritza sektoreari zuzenduta, Bizkaiko sagardo naturala egiteko sagar eta sagardo ekoizleei, mahastizaintzarako, estalkipeko landare, landa turismo, ardi, ahuntz eta abel buru suharren ekoizleei luzatute
- Udalekin elkarlanean, hondartzak zabaldu dira, egoerari egokিতuta baina kalitatezko zerbitzua eskainiz uda guztian
- Eskola Kirola gaurtik martxan jarriko da, egin beharreko moldaketa, formazio eta egitekoak eginda

Geratzen jatezen minutuak ez dira nahiko aipatu ez ditudan guztiak irakurteko. Hori horrela, BFAko ordezkariak, agian, ez dituzue ikusi, ekintza guzti hauek egiten aritu direlako, honetara aritu direlako eta ez beste gauza batzuetara.

Bapateko golpe gogor horren aurrean erreakzionatu dau Foru Aldundiak. Sistema, egoera eta baldintza berrietara moldatu dozue, existitzen ez ziren protokoloak egin eta martxan jarri dituzue, zerbitzuak birmoldatu, eraikinak prestatu, jendea formatu, kontratatu... guzti hori egin duzue. Honetarako inork ez zeukan instrukzio manualik eta orain eginda dago. Eskerrik beroenak berriro zeuri, Ahaldun Nagusi jauna, eta zeure talde guztiari.

Konturatuko zinen Murillo jauna zure arloko ekimenak ez ditudala aipatu. Zure arloak aipamen berezia izan dau goiz honetan. Adinekoak, pertsona bulnerableenak, arrisku gehiena dutenen alde, berandu eta txarto aritu dela Foru Aldundia esan da maiz. Arlo honetan ere egon dira deklarazio mingarriak eta hauek ere ez ditut baloratzen ikuspuntu politikotik, giza ikuspuntutik baino. Bat, Aspaldiko egoitzan gertatutakoaren inguruan esan zena, ez da bidezkoa. “El coronavirus sí sabe de residencias públicas y privadas” hori esatea, ez da justoa. Horrelako deklarazioekin nik uste dot marra gorriak gainditzen direla, gezurra transmititu nahi da edo datuak ez dira egoki aztertu. Zuzena ez izatetik aparte, mingarria da. Adierazpen ez egokiak eta tristeak benetan, ez da horretarako momentua. Nik uste dot gizarteak ez duela holakorik merezi.

Desberdintasunak ulertzen doguz edo ulertu nahi doguz. Zein da oposizioak gustuko duen modeloa Bizkaiko egoitzetarako? Non aplikatu duzue? Ze egoitzetan jarri dozue martxan? Esan mesedez eta aztertuko dogu. Ahaldun Nagusiak datuak eman ditu, kuantitatiboak eta kualitatiboak, baina zuek oraingoan ere, betikora, “hori txarto dago, ez da nahiko, berandu dator...”. Baina zein da zuek aplikatuko zenuten modelo testatua edo eredugarria? Eta kontuz, ez dot galdetzen zeintzuk diren, oposizioko alderdi modura, gobernuari egiten dotzazuezen eskariak, horrek badakiguz zeintzuk diren, pandemia garaian eta pandemia orduko, berdinak direlako. Modelo errealean inguruan galdetzen ari naiz, zuek

gobernatzen dozuen tokietan aplikatzen dituzuen ereduak. Berdin zait, PP, Podemos edo EH Bildu. Ekarri eta aztertuko ditugu, baina bitartean ez gara geldi zain egongo.

Bitartean, zer egin du Foru Aldundiak egoitzetan?

- Erantzun arinerako 5 talde jarri dira martxan kutsatu kasuak edo susmoak dauden egoitzetan testak egiteko
- Irailaren 20ra arte 12.678 test PCR egin dira profesional eta erabiltzaileen artean
- Kutsaduraren, esan daigun, lehen olatuan, Basalan eta suhiltzaileekin 1.534 garbiketa egin dira
- Kutsaduraren ikuskaritzan eta aurre-hartzean, Osasun saileko pandemia adituen laguntzarekin 21 kideko taldea formatu eta aktibatu zan
- Normala den modure sekula baino gehiago sendotu dira ikuskaritza lanak eta osasun teknikariekin elkarlanean egin dira
- 212 ikuskaritza bisita eta 600 ikuskaritza ekintza gauzatu dira
- Lehen kutsadura olatuan 1.010.579 EPI banatu ziren eta 50.000 dei egin ziren etxeetara
- Plantilak sendotzeko 1.900 laguneko profesional ez osatutako poltsa bat garatu da, pertsonal kontrataziorako arazoak dituzten egoitzen zerbitzura
- Bihar bukatuko den ikastaroarekin 4.187 langile izan dira formakuntza jaso dutenak orain arte, formakuntza hori delako egoera honen aurrean garrantzi handia emon behar jakon arlo bat

Eskerrik asko Murillo jauna, zuri, zure talde guztiari eta egoitzetako profesional guztiei.

Asko egin da, asko egin da baina ez da dena egin, ados nago. Ez dugu guztia egin oraindik, hori ez dau hemen inork ukatuko. Rementeria Maiz Ahaldun Nagusi jaunak egin dau, momentuko errealitatearen balorazioa, datu konkretuak jarri ditu mahi gainean, ez du ezer ukatzen ez makilatzen: diru biltzea %18koa izan da aurre ikuspenen azpitik; Barne Produktu Gordina %19,5 jeitsi da eta industri produkzioa %28,6. Langabezia %12an dago ia eta esan da egoera txarra dela, inzertidunbre handia dagola, arlo edo sektore batzuetan egoera txarragoa da beste batzuetan baino. Baina aurrera egingo dogula eta hemendik ere irtengo garala, hori Ahaldun Nagusiak bakarrik esan dau, bakarrik berak esan dau.

200 egunetan hau egin bada Rementeria jauna, gaur zuk hemen azaldutako ekintzak burutute, bidean dauden inzertidunbre horiek argitzen joan ahala irtengo diren proiektu berriak gehitute, irtengo garala, ez dauka inolako zalantzarik gure taldeak. Guzti hori errazago izango da guztion laguntzarekin. Indarrak batzeko garaia da, ez da desberdintasunak handitzeko garaia eta jarrerak urruntzeko garaia. Baina ez diogu uko egingo gizarteari emandako hitzari eta ezta gure egiteko erari, pertsonak dira gure lehentasuna, jarrera eta lanerako konpromiso. Zintzoa gure errezeta.